



Badago euskal gazteriaren beste eredu bat

Azken asteotan ikusi dugu nola ERNAIk, “euskal gazteriaren” izenean, hainbat bortxazko ekintza burutu dituen. Egindakoaren artean, guztion herri subiranotasunaren egoitza den Gernikako Batzar Etxea erasotu dute.

Iraganeko garaietara bueltatzeak kezkatzen gaitu, eta indarkeriaren erabilera sistematiko horren aurrean ezin gara isilik egon. Onartezintzat jotzen dugu indarkeriaren erabilera hori, beldurrean eta era antidemokratikoetan oinarrituta dagoena.

Horregatik argi utzi nahi dugu ERNAIk ez duela euskal gazteria osoa ordezkatzeko, nahiz eta zarata asko egin. Herritarrek jakin behar dute badagoela oso ezberdina den euskal gazteriaren eredu, eta Euskadin gazteria anitza eta plurala badugula.

Guri ere kezkatzen gaitu ultraeskuinaren eta faxismoaren gorakadak, bai Estatu espainolean eta frantsesean, baita Europa osoan ere. Defendatzen dugun ideario politikoa -abertzalea, euskalduna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna defendatzen duena, gizarte eredu anitza nahi duena, LGBTI fobiaren aurka dagoena...- ultraeskuinaren guztiz kontrako da. Baina ultraeskuin espainolista horri aurre egiteko ezin ditugu beraien erak eta jarrerak erabili.

Faxismoari aurre egiten zaio demokraziatik, eta horretarako komeni da hausnarketa kritiko bat egitea: ezin diezaiokegu intolerantziari aurre egin intolerantzia bera erabiliz. Gure ustez, faxismoa elikatzen da aurreko hori eginez; Euskadiren askatasuna bide demokratikoetatik lortu baitugu.

EGIk badu autonomia estrategiko oso eremu handia, baina agerian dago EAJ-PNVrekin dugun harremana sortu ginenetik. Gauza bera gertatzen da ERNAIrekin. ERNAI eta Sortu ez dira gauza bera, jakina, baina beraien artean harreman oso estua dago. Sortu da EH Bildu koalizioaren alderdi politiko nagusia, beraz, ezin dugu ulertu nola beraien ordezkariak esaten duten ERNAIk burututako ekintzekin ez dutela zerikusirik. Euskal herritarrek tontotzat hartzen al dituzte?

EGI – Euzko Gaztedik, 1904n sortuta, euskal gazteriaren beste eredu bat badagoela defendatzen du: gazteri bakezalea, demokratikoa, herrikoia, euskalduna, independentista, bere jardura ekintza politikoan oinarritzen duena. Gure asmoa Euskal Estatu propioa eraikitzea da, zazpi herrialdeek osatua, baina helburu horretan aurrera egiteko argi utzi nahi dugu indarkeria erabiltzea guztiz lekuz kanpo dagoela. Azken 122 urtez begi bistan geratu da Euskadiren subirotasunean aurrera egiteko borroka demokratikoa era eraginkorrena izan dela helburu horiek lortzeko.



Bilbon, 2025eko abenduak 10

Hay otro modelo de juventud vasca

En las últimas semanas hemos visto cómo ERNAI, en nombre de la "juventud vasca", ha llevado a cabo diversas acciones violentas. Entre ellas, han invadido la Casa de Juntas de Gernika, sede de nuestra soberanía popular.

Nos preocupa esta vuelta a tiempos pasados y ante ese uso sistemático de la violencia no podemos permanecer calladas. Consideramos inaceptable este uso de la violencia basado en el miedo y en las formas antidemocráticas. Por eso queremos dejar claro que ERNAI no representa a toda la juventud vasca, por mucho ruido que hagan. La ciudadanía debe saber que existe un modelo de juventud vasca muy diferente y que en Euskadi contamos con una juventud diversa y plural.

A nosotras también nos preocupa el auge de la ultraderecha y del fascismo, tanto en el Estado español y francés como en toda Europa. El ideario político que defendemos -abertzale, euskaldun, que defiende la igualdad entre mujeres y hombres, que busca un modelo de sociedad plural, que está en contra de la LGTBI fobia... - es completamente opuesto al de la ultraderecha. Pero para combatir a esa ultraderecha españolista no podemos utilizar sus maneras y sus actitudes. El fascismo se combate desde la democracia, y para ello conviene realizar una reflexión crítica: no podemos combatir la intolerancia utilizando esa misma intolerancia. Creemos que el fascismo se alimenta precisamente haciendo eso; y tenemos claro que la libertad de Euskadi la hemos conseguido exclusivamente por vías democráticas.

EGI tiene un ámbito de autonomía estratégica muy grande, pero es evidente nuestra relación con EAJ-PNV desde nuestra fundación. Lo mismo ocurre con ERNAI. Es obvio que ERNAI y Sortu no son lo mismo, pero hay una relación muy estrecha entre ellos. Sortu es el principal partido político de la coalición EH Bildu, por lo que no podemos entender cómo sus representantes dicen que no tienen nada que ver con las acciones llevadas a cabo por ERNAI. ¿Nos toman a la ciudadanía vasca por tonta?

EGI – Euzko Gaztedi, fundado en 1904, defiende que existe otro modelo de



juventud vasca: una juventud pacifista, democrática, popular, euskaldun, independentista, que basa su actividad en la acción política. Nuestra intención es construir un Estado Vasco propio, formado por los siete territorios, pero para avanzar en ese objetivo queremos dejar claro que el uso de la violencia está totalmente fuera de lugar. Durante los últimos 122 años ha quedado de manifiesto que la lucha democrática por avanzar en la soberanía de Euskadi ha sido la más eficaz para alcanzar estos objetivos.

Bilbao, 10 de diciembre de 2025